

Kiñu Gaztetxea desalojo arriskuan aurkitzen da

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 07/02/2025

Orain dela bost urte hasi zuen gaztetxearen kontrako prozesua Sabadell bankuak eta, apirilaren 23an, espazioa desalojatuko dela erabaki ahal da Durangoko epaitegian.

Igorreko (Bizkaia) Kiñu Gaztetxeko kideek jakinarazi dutenez, gune autogestionatua desalojo arriskuan aurkitzen da. Sabadell banketxearen jabetzakoa da eraikina, eta 2020ko uztailaren 20an hasi zen kanporatze prozesua. Ordutik, negoziazio ugari egon dira, hainbat kanpaina aurrera atera dira eta gaztetxearen aurkako beste epaiketa bat ospatu zen. Epaiketa horretan, Sabadelleko ordezkariak ez ziren judiziora aurkeztu. Dena den, "bigarren aukera" bat eman zioten epaitegiek banketxeari, eta Gaztetxea husteko prozedurari berriz ekiten utzi zioten. Orain beste epaiketa bat ospatuko da apirilaren 23an eta, Gaztetxeko kideek adierazi dutenez, espazioa "desalojatuko dala erabakiko da Durangoko epaitegien".

Ondoren, beraiena ezin dela kasu isolatu bat bezala hartu eta "gune okupau zein autogestionauok etengabeko itotze prozesuetan" bizi direla salatu dute, horren adibide Zornotzako Matrailu Gaztetxea, Durangoko Kaletik Gaztetxera mugimendua, Portugaleteko Sastraka Gaztetxea edota Sestaoko Txirbilenea espazioa jarritz. Segidan, "botere ekonomiko eta politikoantzako" oztopo handia direla adierazi dute eta "eurin arma errepresibo eta juridiko" guztiak baliatuko dituztela gune autogestionatuak desagertzen saiatzeko gaitsetzi dute.

Eraso honen aurrean argi utzi dute ez direla belauniko geldituko, eta eraso hau ez dela erantzun gabe geldituko gehitu dute. Horrela, borroka antolatzen hasiak direla argitu dute: "Gune okupau eta autogestionatuonganako erasoak handituten diran moduan, gu be bagabiz saretuten eta gure amorrua zein alkartasuna antolatuten". Bide horretan, otsailan 21ean lgorren egingo duten manifestaziora hurbiltzeko deia egin dute, izan ere, "inoz baino gehau Kiñuz betetako elkartasune" behar dute.

Hamaika urte igaro dira espazioa birjabetu zutenetik, eta hamaika urte horietan, hamaika dire bertatik sortutako militante, proiektu, kontzertu, berbaldi, ekintza, tailer eta abar luze bat, izan ere, Arratiko eragile eta elkarte askorentzako aterpe izan da espazioa.

<https://eh.lahaine.org/kinu-gaztetxea-desalojo-arriskuan-aurkitzen>